

1.- SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 48. artikuluan ezartzen duenez, zergei eragiten dieten gastu fiskalak aurrekontuetan jaso behar dira. Bestalde, irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onartzen duenak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen barruan Euskal Herriko aurrekontu gastuei laguntzeko foru aldundiek egiten dituzten ekarpenen onura fiskalei buruz Herri Finantzen Euskal Kontseiluak ematen duen informazioa jasoko da.

Gastu Fiskalen Aurrekontua (GFA) definitu beharko balitz, funtsean honako hau dela esan liteke: espresio zifratu bat, ekitaldi batean sarrera fiskalek izan dezaketen murrizpena adierazten duena zerga onurak eman direlako helburu ekonomiko eta sozial jakin batzuk lortzeko.

Jakina denez, gastu fiskalek nabarmen urritzen dituzte baliabide publikoak. Hortaz, gastu horiek aurrekontuan duten eragina ongi ezagutzeak aukera ematen digu zehazteko zenbat diru zuzentzen den aurrekontuan zergaz kanpoko helburuak lortzeko (familiak babestea edo inbertsio enpresariala sustatzea). Baina horretaz gain, aurrekontua gardena izaten ere laguntzen du, iritzi publikoari ezagutarazten zaiolako nora zuzentzen diren interes orokorra betetzeko egiten diren ahaleginak eta zein sakrifizio dakarren diru-bilketan zerga onurak emateak, horiek hobeto kontrolatzeaz batera.

Gastu fiskalen aurrekontuak gaurko Herri Ogasunean garrantzi handia badu ere, adostasun falta nabaria antzematen da gastuak eta zerga onurak kalkulatzeko metodologian, garrantzian eta esanahian; gastu fiskal desberdinen arteko erlazioak dituen ondorioak ebaluatzea zaila gertatzen da, ezinezkoa da gastu horien gorabeherak zergadunen portaeran dituzten eraginak zehaztea, datuak ez dira behar adinakoa, arazo estatistikoak eta iturrien kalitatea ere hor daude, etab.

Oztopo horien guztien aurrean, eta gastu fiskalak, beste figura tributarioak barne, hobeto ezagutzuz

1.- INTRODUCCIÓN

La Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece en su artículo 48 que se deberá consignar el importe de los gastos fiscales que afecten a los tributos. Además, el artículo 5 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, dispone que los presupuestos de la Comunidad Autónoma deberán consignar la información que facilite el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las Aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

En esencia, el Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF), puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que, previsiblemente, se producirá en un ejercicio como consecuencia de la concesión de beneficios fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Un buen conocimiento de la incidencia presupuestaria de los gastos fiscales, los cuales suponen una importante merma de los recursos públicos, permite no sólo determinar la aportación del Presupuesto a fines extrafiscales tan diversos como la protección a la familia o el fomento de la inversión empresarial, sino que ayuda a la transparencia presupuestaria, al dar conocimiento a la opinión pública sobre dónde se dirigen los esfuerzos en aras de cumplir el interés general y cuál es el sacrificio recaudatorio que comportan los beneficios fiscales, impulsando a su vez un mayor control de los mismos.

A pesar de la importancia que el PGF tiene en la Hacienda Pública moderna, existe una falta clara de consenso respecto al significado, alcance y metodología de estimación de los gastos o beneficios fiscales; hay dificultad en evaluar los efectos derivados de la interrelación de los distintos gastos fiscales, imposibilidad de determinar los efectos que provocan las alteraciones de los gastos fiscales en el comportamiento de las personas contribuyentes, problemas de carencia de datos, problemas estadísticos, calidad de fuentes, etc.

Todas estas dificultades, junto a la necesidad de avanzar en el mejor conocimiento de los gastos

joan ahal izateko, ezinbesteko iritzi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan komuna izango den metodologia bat finkatzeari datuak bateratzearen.

Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organoan (EZKO) xede horrekin eratu den lan taldean hainbat azterketa eta analisi egin dira ez bakarrik koordinazio, harmonizazio eta berriztapen hori hobetzeko, baita gastu fiskalen aurrekontua hobeto kalkulatu eta kuantifikatzeko ere.

Eta baita, izaera pertsonala duten bi zerga nagusien gastu fiskalen kontzeptuak sexuaren arabera banatuta erakusten dira. Bi zerga horiek PFEZ eta Ondarearen gaineko Zerga dira.

Metodologikoki bi zergetan zerga gastua gizon eta emakumeen arabera egotzi da, aztertu den neurri bakoitzean ukituak diren zergadunen sexuari kasu eginda. Kontuan hartzen da gastu fiskal kontzeptu bakoitzean ematen den kuota likidoaren gehikuntza sexuen arabera nola banatzen den.

Laburbilduz, honela definitu liteke gastu fiskala: sarrerak gutxitzea salbuespenak, hobariak, murrizpenak eta desgrabazioak direla medio. Zergak, horren ondorioz, alendu egiten dira beren egitura orokorretik, eta helburu ekonomiko-sozialak dituzten pertsona zergadun, ekintza edo jarduera jakin batzuen aldeko diskriminazioak ekartzen dituzte.

Beraz, eta definizioan adierazi denaren arabera, gastu fiskalak honako hauek izan daitezke:

- Zerga salbuespenak edo oinarri ezargarritik kanpo geratzen diren errentak. "Salbuespen teknikoak" eta "zergapetu gabeko kasuak" ez dira gastu fiskaltzat hartzen.
- Oinarri ezargarriaren murrizpenak edo oinarri ezargarria lortzeko errenta gordinetik murriztutako kopuruak.
- Kreditu fiskalak edo zergaren kuotatik kendutako kopuruak.
- Zerga tasa bereziak edo murriztuak, talde nahiz jarduera jakin batzuen mesederako.

fiscales, incluyendo, también, otras figuras tributarias, han hecho necesaria la obtención de una metodología común a los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que haga posible la consolidación de los datos.

En el grupo de trabajo constituido al efecto en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE), se han realizado diversos estudios y análisis no sólo para mejorar esa coordinación, armonización y renovación, sino también para mejorar en la estimación y cuantificación del PGF.

Asimismo, se muestra el desglose del gasto fiscal por sexos de los dos principales impuestos de carácter personal: el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el Impuesto sobre el Patrimonio.

Metodológicamente en ambos tributos se ha imputado el gasto fiscal por hombres y mujeres atendiendo al sexo de las personas contribuyentes afectadas por cada medida analizada. Se tiene en cuenta la distribución por sexo de los aumentos de cuota líquida que se producen ante cada concepto de gasto fiscal.

Resumiendo, se puede definir el gasto fiscal como la minoración de los ingresos debido a las exenciones, bonificaciones, reducciones y desgravaciones que apartan a los tributos de su estructura general y constituyen discriminaciones en favor de determinadas personas contribuyentes, actuaciones o actividades dirigidas a la consecución de determinados objetivos económico - sociales.

Por tanto, y según se expresa en la definición, los gastos fiscales podrán adoptar las siguientes formas:

- Exenciones fiscales o rentas que quedan excluidas de la base imponible. No se consideran gasto fiscal las denominadas "exenciones técnicas" y los "supuestos de no sujeción".
- Reducciones de la base imponible o cantidades deducidas de la renta bruta para conseguir la base imponible.
- Créditos fiscales o cantidades deducidas de la cuota impositiva.
- Tipos impositivos especiales o reducidos que intentan beneficiar a determinados grupos o actividades.

2.- GASTU FISKALEN AURREKONTUA PRESTATZEA. KALKULURAKO METODOLOGIA

Gastu fiskalak kontabilizatzerakoan “Sarrerren galera” kuantifikatzeko metodoa erabili da. Honela definitu liteke sarrerren galera: xedapen batek pizgarri jakin bat ezartzeagatik sarrera fiskalean gertatzen den murrizpenaren zenbatekoa. “Kutxako irizpidea” edo sarrerak gutxitzen diren unea kontuan hartuz baloratzen da.

Oro har, bi teknika mota erabili badira ere, badira zenbait kasu, BEZa eta zerga berezi jakin batzuk adibidez, metodologia zehatzagoa behar dutenak:

1) Simulazio teknikak: zergadun guztiak edo horien lagin adierazgarri bat hartuz, eta beharrezkoak diren aldaketak eginez, posible da onura fiskalen eragina zergadun bakoitzeko ezagutzea, eta, geroago emaitzak horiek batu ondoren, zenbateko osoa lortzea.

2) Gastu fiskalen kontzeptu desberdinek aurreko ekitaldietan izan duten bilakaera ezagutu ondoren, gastu horiek dagokion urtera proiektatzen dira BPG nominala gehituz edo zerga bilketan izan duen eboluzioa aztertuz. Aurreko ekitaldietan eta urte horretan aplikatu den zerga araudia behin ezagututa egiten da hori.

Tributu bakoitzari buruz dagoen informazio fiskalak eta aztertzen den gastu fiskalaren izaerak erabakitzen dute zein metodo erabili kasu bakoitzean.

Errenta Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zergaren gastu fiskalei dagokienez, oso informazio zehatza eskaintzen dugu. Bi arrazoi daude horretarako: batetik, zerga horien inguruan estatistika ugari eskura izatea eta, bestetik, zerga onuretako batzuk pertsona zergadunek beraiek beren urteko likidazioetan airtortzea.

Beste zerga batzuetan (Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Aseguru Primaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziak) zailagoa da gastu fiskalak zenbatekoak izan daitezkeen kalkulatzeko. Horien izaera dela eta (salbuespenak eta tasa aldaketak direlako batik bat), eskura dugun informazio fiskala ez da nahikoa gertatzen. Horrelakoetan, airtortutako datu fiskalak, urte desberdinetako

2.- ELABORACIÓN DEL PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES. METODOLOGÍA DE CÁLCULO.

Para la contabilización de los gastos fiscales se adopta el método de cuantificación de la “pérdida de ingresos”, definida como el importe en el cual el ingreso fiscal se reduce a causa de la existencia de una disposición particular que establece el incentivo del que se trate. Su valoración se efectúa de acuerdo con el “criterio de caja” o momento en que se produce la merma de ingresos.

En general, se han utilizado dos tipos de técnicas, si bien hay casos excepcionales como el IVA y ciertos impuestos especiales, que precisan una metodología más concreta:

1) Técnicas de simulación: tomando la totalidad o una muestra representativa de las personas contribuyentes, y realizando las modificaciones oportunas se logra determinar el impacto de los beneficios fiscales para cada persona contribuyente, para después agregando obtener el importe total.

2) Partiendo de la evolución observada en ejercicios precedentes en los diferentes conceptos de gastos fiscales, proyectarlos posteriormente al año de referencia mediante el incremento del PIB nominal o analizando la evolución recaudatoria del impuesto, conocida la normativa tributaria aplicada en los ejercicios anteriores y en ese año.

La información fiscal disponible sobre cada tributo y el carácter del propio gasto fiscal objeto de análisis, es el que determina el método elegido en cada caso.

En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre el Patrimonio e Impuesto sobre Sociedades se ofrece información detallada de los gastos fiscales correspondientes, por una parte porque se posee una importante serie estadística del impuesto, y por otra, por el hecho de que algunos de los beneficios fiscales sean declarados por las propias personas contribuyentes en sus liquidaciones anuales.

En otros impuestos, (Impuesto sobre el Valor Añadido, Impuesto sobre Primas de Seguros e Impuestos Especiales) las dificultades para estimar los gastos fiscales son mayores. El carácter de los mismos (principalmente exenciones y variaciones en los tipos) hace que la información fiscal de que se dispone no sea suficiente. En estos casos, además de analizar

araudiak eta salbuespenei buruzko datu ekonomikoak aztertzeaz gainera, beste administrazio batzuek (foru administrazioek eta Administrazio Zentralak) aurreko ekitaldietako aurrekontuetan jasotako gastuak ere hartu ditugu erreferentzia gisa.

3- ARAUDI ALDAKETAK ETA METODOLOGIA ALDAKETAK

2026ko GFARI begira araudi aldaketa aipagarri batzuk sartu dira zuzenean gastu fiskal bezala hartzen diren kontzeptuetan, edo gastu fiskala kalkulatzeko erabiltzen direnetan, eta gastu fiskaltzat hartzen diren kontzeptu berriak ere sartu dira. Horietako gehienak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bidez onartu dira.

Gastu fiskaltzat hartzen diren kontzeptuetako batzuk berriak dira zerga araudian, eta ez dago horiei buruzko daturik edo aurrekaririk; beraz, ezin izan da haien eragina zehaztu. Batez ere, fiskaltate berdearekin lotutako murrizketa, salbuespen eta kenkarietan gertatzen da.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

- Lan etekinen hobaria. Hobariaren gehieneko zenbatekoa 4.650 eurotik 8.000 eurora eguneratu da; lan etekinen aurretiazko etekinaren beheko tartea 7.500 eurotik 14.800 eurora igaro da; lan etekinen aurreko etekinaren goiko tartea 15.000 eurotik 23.000 eurora igaro da; eta formula aplikatzeko koefizienteak 0,22tik 0,6098ra igaro da. Gutxieneko hobaria 3.000 eurokoa izaten jarraituko du.
- Autolikidatzeko betebeharra. 14.000 euroko muga 20.000 eurora aldatzen da, eta baldintza jakin batzuetan jarduten duen 14.000-20.000 euroko atalase bikoitzeko muga ezabatu egiten da. Ondorioz, atxikipen taularen arabera autolikidatzeko aukera berezia ezabatzen da.
- Baterako tributazioa. Familia unitatearen kontzeptua gizarte errealitate eta premia berrietara egokitzen da, eta ikusgarritasun eta protagonismo handiagoa ematen zaie

los datos fiscales declarados, la normativa vigente en los diferentes años y datos económicos relacionados con las exenciones, se toman como referencia los gastos presupuestados por otras Administraciones (Forales y Central) en ejercicios precedentes.

3 – CAMBIOS NORMATIVOS Y CAMBIOS METODOLOGICOS

De cara al PGF de 2026 se han introducido algunos cambios normativos significativos en algunos conceptos considerados directamente como gasto fiscal o en aquellos que se utilizan para el cálculo del gasto fiscal, y también se han introducido nuevos conceptos que se consideran gasto fiscal. La mayoría de ellos se ha aprobado mediante la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias.

Algunos de los conceptos considerados como gasto fiscal son una novedad en la normativa tributaria y no se dispone de datos o antecedentes sobre los mismos, por lo que no ha sido posible determinar su impacto. Ocurre sobre todo en las reducciones, exenciones y deducciones relacionadas con la fiscalidad verde.

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

- Bonificación del rendimiento del trabajo. Se actualiza el importe máximo de la bonificación de 4.650 euros a 8.000 euros; el tramo inferior de rendimiento previo de rendimiento de trabajo pasa de 7.500 euros a 14.800 euros; el tramo superior de rendimiento previo de rendimiento de trabajo pasa de 15.000 euros a 23.000 euros; y el coeficiente de aplicación de la formula pasa de 0,22 a 0,6098. La bonificación mínima se mantiene en 3.000 euros.
- Obligación de autoliquidar. El límite de 14.000 euros pasa a 20.000 euros y se elimina el límite de doble umbral de 14.000-20.000 euros, que opera bajo ciertas condiciones. En consecuencia, se elimina la opción especial de autoliquidar con arreglo a la tabla de retenciones.
- Tributación conjunta. Se adapta el concepto de unidad familiar a las nuevas realidades y necesidades sociales, dando mayor visibilidad y protagonismo a las familias



guraso bakarreko familiei; izan ere, bi gurasoko familiaren tratamendu fiskalarekin parekatzen da (4.800 euroko murrizketa bakarra ezartzen da familia unitatearen modalitate guztietarako, eta, indarrean dagoen araudiarekin, 4.168 eurokoa da guraso bakarreko familia unitateetarako).

Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da aurreikuspen hau: legezko banantzea, ezkontza loturarik edo izatezko bikoterik ez badago, eta horretarako ebazpen judiziala egotea gertatuz gero, familia unitatea izango da gurasoa edo adoptatzailea edo hartzailea eta ekonomikoki modu eksklusiboan mendekoak diren pertsona guztiak. Kontrako frogarik ezean, bi gurasoen mendekotasun ekonomikoa dagoela uste izango da. Azkenik, familia unitatearen modalitate berri bat gehitu da, etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimen babesa areagotzeko.

monoparentales, ya que se iguala su tratamiento fiscal al de la familia biparental (se establece una única reducción de 4.800 euros para todas las modalidades de unidad familiar, mientras que con la normativa vigente es de 4.168 euros para unidades familiares monoparentales).

En ese sentido, cobra especial relevancia la previsión de que, en caso de separación legal, ausencia de vínculo matrimonial o pareja de hecho y existencia de resolución judicial al efecto será unidad familiar la persona progenitora o la persona adoptante o acogedora y todas las personas dependientes económicamente de forma exclusiva. Se presume, salvo prueba en contrario, que existe dependencia económica de ambos progenitores. Por último, se incorpora una nueva modalidad de unidad familiar con el fin de incrementar la protección de las víctimas de violencia doméstica o de violencia de género.

- Jarduera ekonomikoen etekina. Jarduera ekonomikoaren hasieraren kasuan aplikatu beharreko murrizketa %10etik %15era igo da emakumeen kasuan.
- Kenkaria Enpresa sortu berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik. Kenkariaren ehunekoa %20tik %25era igo da emakumeentzat.
- Kenkaria hazkunde ahalmen handiko entitateak erakundeak finantzatzeagatik. Emakumeen portzentajea %30etik %35era igotzen da enpresa berritzaile sortu berrien akzioen harpidetzen kasuan, eta %15etik %20ra hazkunde prozesuan dauden enpresen akzioen harpidetzen kasuan.
- Aurrezpenaren oinarriaren tarifa. Tarifa berria ezartzen da, 6 tartekoa: hasierako tasa %20koa izango da 15.000 euroko oinarria arte, eta %27koa 240.000 eurotik aurrera. Indarrean dagoen tarifak 5 tarte ditu: hasierako tasa %20koa da 2.500 eurora arteko oinarria arte, eta %25ekoa 30.000 eurotik gorako oinarritik.
- Rendimiento de actividades económicas. La reducción aplicable en el caso de inicio de actividad económica pasa del 10% al 15%, en el caso de mujeres.
- Deducción por inversión en empresas de nueva o reciente creación. El porcentaje de deducción pasa del 20% al 25% para las mujeres.
- Deducción por financiación a entidades con alto potencial de crecimiento. El porcentaje pasa del 30% al 35% para las mujeres en el caso de suscripción de acciones de empresas innovadoras de nueva creación; y del 15% al 20% para la suscripción de acciones de empresas en proceso de crecimiento.
- Tarifa de la base del ahorro. Se establece una nueva tarifa de 6 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 15.000 euros de base y del 27% a partir de 240.000 euros de base. La tarifa vigente tiene 5 tramos, con un tipo inicial del 20% hasta 2.500 euros de base y del 25% a partir de 30.000 euros de base.



2024			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	2.500	20%
2.500	500	7.500	21%
10.000	2.075	5.000	22%
15.000	3.175	15.000	23%
30.000	6.625		25%

2025			
Oinarria / Base	Kuota / Cuota	Gainerakoa / Resto	Tasa / Tipo
0	0	15.000	20%
15.000	3.000	15.000	22%
30.000	6.300	30.000	23%
60.000	13.200	60.000	25%
120.000	28.200	120.000	26%
240.000	59.400		27%

- Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen murrizpenaren mugak. Enplegu BGAEi egindako ekarpenak egungo 5.000 euroko mugatik ateratzen dira, eta 8.000 euroko mugaren barruan konputatzen dira, BGAE horiei egindako ekarpenekin batera. Langile autonomoen ekarpenen kasuan, ekarpenen muga 4.000 eurokoa izango da. Nolanahi ere, oinarria murrizteko gehieneko muga osoa 12.000 eurokoa izango da.
- Límites de la reducción en base por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social. Las aportaciones a EPSV de empleo salen del límite actual de 5.000 euros y pasan a computar dentro del límite de 8.000 euros junto a las contribuciones a esas mismas EPSV. En el caso de aportaciones de personas trabajadoras autónomas el límite de las aportaciones será de 4.000 euros. En todo caso, el límite máximo conjunto de reducción de la base se mantiene en 12.000 euros.
- Kenkari berri bat ezarri da lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetarako ekarpenengatik. %15, %20 edo %25ekoa izan daiteke, erakunde enplegatzailearen ekarpenen eta kontribuzioen mailaren arabera, betiere urteko soldata gordin osoaren %3 baino handiagoa bada. Portzentaje horigainditzen ez bada, aldi baterako 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako, %10eko kenkaria onartzen da.
- Se establece una nueva deducción por aportaciones a planes de previsión social preferentes. Podrá ser del 15%, 20% o 25% según el nivel de aportaciones y contribuciones de la entidad empleadora, siempre que sea superior al 3% del salario bruto anual total. Si no se supera dicho porcentaje, transitoriamente para los periodos impositivos que van desde 2025 a 2029, se permite una deducción del 10%.
- Kenkari berri bat ezartzen da autonomoek enplegu gizarte aurreikuspeneko planei egindako ekarpenengatik. %10eko portzentaje orokorra eta %15ekoa 36 urtetik beharagoentzat.
- Se establece una nueva deducción por aportaciones realizadas por autónomos a planes de previsión social de empleo. Porcentaje general del 10% y del 15% para menores de 36 años.
- Ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria. Kenkariaren portzentajea %18tik (1.530 euroko muga) %23ra (1.955 euroko muga) pasatzen da guraso bakarreko familientzat, %65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat eta etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimetentzat.
- Deducción por adquisición de vivienda habitual. El porcentaje de deducción pasa del 18% (límite de 1.530 euros) al 23% (límite de 1.955 euros) para familias monoparentales, personas con discapacidad $\geq 65\%$ y víctimas de violencia doméstica o de género.
- Kapital higiezinaren etekina. Etxebizitza errentamenduetan, etekin osoen gaineko %20eko hobari aplikagarria aldatu egiten da: 1) %30era, Hiri Errentamenduen Legearen 2. artikuluari atxikitako errentamenduetan; 2) %50era,
- Rendimiento de capital inmobiliario. En los arrendamientos de vivienda la bonificación aplicable sobre los rendimientos íntegros pasa del 20% al: 1) 30% en los arrendamientos acogidos al artículo 2 de la Ley de Arrendamientos Urbanos; 2) 50% en

- bitartekaritza publikoa dagoenean; 3) %70era, zona tentsionatuetan egiten direnean, Hiri Errentamenduen Legearen 2. artikuluari atxikita daudenean eta lehen aldiz alokatzen direnean edo azken 5 urteetan errentan egon ez direnean.
- Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria. Kenkaria aplikatzeko aukera mugatzen da zergadunaren oinarri likidagarri orokorra (gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen murrizketak kontuan izan gabe), eta, hala badagokio, aurrezpenaren oinarri likidagarria, 85.000 eurokoa edo txikiagoa denean.
 - Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkaria. %35eko portzentajea ezartzen da (2.800 euroko muga) 36 urtetik beherakoentzat, %65eko edo gehiagoko desgaitasuna dutenentzat eta etxeko indarkeriaren edo genero indarkeriaren biktimentzat. Indarrean dagoen araudian, 30 urtetik beherako pertsonen %30eko portzentajea dute (2.400 euroko muga), eta gainerako kolektiboek %20ko kenketa orokorra aplikatzen zaie (1.600 euroko muga).
 - Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Kenkaria aplikatzeko aukera mugatzen da zergadunaren oinarri likidagarri orokorra (gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen murrizketak kontuan izan gabe), eta, hala badagokio, aurrezpenaren oinarri likidagarria, 85.000 eurokoa edo txikiagoa denean.
 - Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria. Gazteentzako %23ko portzentajea (1.955 euroko muga) 36 urtetik beherakoei aplikatzen zaie, eta indarreko araudiarekin, berriz, 30 urtetik beherakoei. Gainera, etxebizitza eskuratzen den urtean ez da aplikatuko urteko gehieneko muga.
 - Alokaturako etxebizitzentzat kenkari berri bat ezartzen da, babestutako birgaitzeengatik. %10ekoa izango da, 3.000 euroko mugarekin.
 - Etxebizitzen birgaitze energetikoagatiko kenkari berri bat ezarri da. % 15ekoa izango da, 3.000 euroko mugarekin.
 - Deducción por alquiler de vivienda habitual. Se limita la posibilidad de aplicarse la deducción para personas contribuyentes que tengan una base liquidable general, determinada sin computar las reducciones por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros.
 - Deducción por alquiler de vivienda habitual. Se establece un porcentaje del 35% (límite 2.800 euros) para personas menores de 36 años, personas con una discapacidad $\geq$ 65% y víctimas de violencia doméstica o de género. En la normativa vigente las personas menores de 30 años tienen un porcentaje de deducción del 30% (límite 2.400 euros) y el resto de colectivos se aplican la deducción general del 20% (límite 1.600 euros).
 - Deducción por adquisición de vivienda habitual. Se limita la posibilidad de aplicarse la deducción para personas contribuyentes que tengan una base liquidable general, determinada sin computar las reducciones por aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, y, en su caso, una base liquidable del ahorro, iguales o inferiores a 85.000 euros.
 - Deducción por adquisición de vivienda habitual. El porcentaje del 23% (límite de 1.955 euros) para personas jóvenes se aplica a menores de 36 años, mientras que con la normativa vigente la aplican las personas menores de 30 años. Además, no se aplicará el límite máximo anual el año de adquisición de la vivienda.
 - Se establece una nueva deducción por rehabilitación protegida para viviendas arrendadas. Será del 10%, con un límite de 3.000 euros.
 - Se establece una nueva deducción por rehabilitación energética de viviendas. Será del 15%, con un límite de 3.000 euros.

- Kenkari berri bat ezartzen da ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatik. %15ekoa izango da (oinarriaren muga 5.000 euro).

- Se establece una nueva deducción por la instalación de puntos de recarga de vehículos eléctricos. Será del 15% (límite de 5.000 euros de base).

Sozietateen gaineko zerga

- Kenkari berri bat ezartzen da erakunde enplegatzaileak enpleguko lehentasunezko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei egindako kontribuzioengatik. Kenkaria %15, %20 edo %25ekoa izan daiteke, kontribuzio horien arabera, baldin eta erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 baino handiagoak badira. 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, %10eko kenkaria ezartzen da, erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren % 1,5 gainditzen ez denean.
- Kenkari berri bat ezartzen da erakunde enplegatzaileak enpleguko gizarte aurreikuspeneko planei egindako kontribuzioengatik. Kenkariaren portzentajea %10ekoa izango da, betiere erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 baino handiagoak badira, edo 36 urtetik beherako pertsonen egindako ekarpenen kasuan. 2025etik 2029ra bitarteko zergaldietarako ondorioekin, %5eko kenkaria ezartzen da, erakunde enplegatzailearen urteko soldata gordin osoaren %1,5 gainditzen ez denean.
- Bizikletetan inbertitzeagatik kenkari berri bat ezartzen da. Langileak beren egoitzatik lanera eta alderantziz joan daitezen errazteko, %10eko kenkaria proposatzen da (gehienezko 3.000 euroko oinarria elektrikoetan eta 500 eurokoa gainerakoetan). Gainera, zergaldi bakoitzeko gehienezko oinarri bat ezartzen da: 15.000 euro mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat, eta 20.000 euro gainerakoentzat.
- Amortizazio askatasuna, amortizazio azkarra eta amortizazio bateratua. Mikroenpresek eta enpresa txikiek amortizazio-askatasuna izango dute "0 emisioa" ibilgailuei eta birkarga puntuetarako inbertsioei dagokienez; eta amortizazio azeleratuko enpresa ertainek kasu horietarako.

Impuesto sobre sociedades

- Se establece una nueva deducción por contribuciones de la entidad empleadora a entidades de previsión social voluntaria de empleo preferentes. El porcentaje de deducción puede ser del 15%, 20% o 25%, dependiendo de esas contribuciones, siempre y cuando sean superiores al 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora. Con efectos para periodos impositivos del 2025 a 2029 se establece una deducción del 10%, cuando no se supere ese 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora.
- Se establece una nueva deducción por contribuciones de la entidad empleadora a planes de previsión social de empleo. El porcentaje de deducción será del 10%, siempre y cuando sean superiores al 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora, o en caso de contribuciones realizadas a personas menores de 36 años. Con efectos para periodos impositivos del 2025 a 2029 se establece una deducción del 5%, cuando no se supere ese 1,5% del salario bruto anual total de la entidad empleadora.
- Se establece una nueva deducción por inversión en bicicletas. Con el objetivo de facilitar el desplazamiento de los trabajadores de su residencia al trabajo y viceversa, se plantea una deducción del 10% (base máxima 3.000 euros en eléctricas y 500 euros en resto). Además, se establece una base máxima por periodo impositivo: 15.000 euros para microempresas y pequeñas empresas y 20.000 euros para el resto.

- Libertad de amortización, amortización acelerada y amortización conjunta. Las microempresas y pequeñas empresas tendrán libertad de amortización respecto a los vehículos "emisión 0" y las inversiones para puntos de recarga; y las empresas medianas amortización acelerada para esos mismos supuestos.

- Ikerketa- eta garapen jarduerengatikoen kenkaria. %35eko portzentajearen sartzen dira ingurumen inpaktu negatiboa nabarmen murrizten duten jarduerak. Gainera, gastuak aurreko bi urteetan egindakoen batez bestekoa baino handiagoak badira, batez besteko horretara arteko portzentajea aplikatuko da, eta soberakinari, berriz, %55a.

- Deducción por actividades de investigación y desarrollo. Se incluyen en el porcentaje del 35% las actividades que reduzcan de forma sustancial el impacto ambiental negativo. Además, cuando los gastos sean superiores a la media de los efectuados en los dos años anteriores, se aplicará el porcentaje hasta dicha media y al exceso el 55%.

4.- 2026ko GASTU FISKALEN AURREKONTUA

2026. urterako aurrekontuetan 2.859.303.224,43 euroko gastu fiskalak jaso dira guztira. Sarrera tributario teorikoak hartzen baditugu, hau da, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zergen bidez espero diren sarrerak gehi aurreikusitako gastu fiskalen zenbatekoa, gastu fiskalak sarrera teoriko horien %29,0 dira.

Ondoko bi tauletan 2026. urterako gastu fiskalen aurreikuspena eta zerga itunduengatik espero diren sarrerak konparatzen dira alde batetik, eta bestetik, 2025eko eta 2026ko gastu fiskalen aurreikuspenen arteko konparazioa egin da.

4.- PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2026

Los gastos fiscales presupuestados para el año 2026 ascienden a 2.859.303.224,43 euros, lo cual representa el 29,0% de los ingresos tributarios teóricos (suma de los ingresos por tributos afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas y del importe estimado de los propios gastos fiscales).

En los dos cuadros siguientes se ofrece, por una parte, la comparación entre la previsión de gastos fiscales y la de ingresos por tributos concertados para el año 2026 y, por otra parte, la comparación entre las previsiones de gastos fiscales para 2025 y para 2026.

ZERGA ITUNDUENGATIK ESPERO DIREN SARREREN AURREKONTUA ETA GASTU FISKALAK. 2026 PRESUPUESTO DE INGRESOS POR TRIBUTOS CONCERTADOS Y DE GASTOS FISCALES. 2026

KONTZEPTUA CONCEPTO	SARREREN AURREKONTUA PPTO. INGRESOS A	GASTUEN AURREKONTUA PPTO. GASTOS B	% B / (A+B)
PFEZ / IRPF	2.679.250	886.877	24,9
Sozietateen gaineko zerga / Impuesto sobre sociedades	511.485	191.884	27,3
Ondarearen gaineko zerga / Impuesto sobre el patrimonio	87.800	74.410	45,9
Oinordetza eta dohaintzen zerga / Impuesto sobre sucesiones y donaciones	75.100	0	0,0
Bestelakoak / Otros	52.700	0	0,0
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	3.406.335	1.153.172	25,3
Ondare eskualdaketa eta EJD zerga / Impto. transmis. patrimoniales y AJD	121.700	59.345	32,8
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impuesto sobre el valor añadido	2.754.015	1.564.557	36,2
Zerga bereziak / Impuestos especiales	586.265	66.683	10,2
Aseguru primen gaineko zerga / Impuesto sobre primas de seguros	43.400	15.546	26,4
Bestelakoak / Otros	42.966	0	0,0
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	3.548.347	1.706.131	32,5
Tasak eta beste sarrera batzuk / Tasas y otros ingresos	32.200	0	0,0
GUZTIRA / TOTAL	6.986.882	2.859.303	29,0

Mila eurokotan / En miles de euros

2025eko aurreikuspenekin alderatuta, +%17,0ko aldakuntza dago.

En comparación con las previsiones de 2025 se da una variación del +17,0%.

2026ko GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAZIOA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2026 Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2025 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2026 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACIÓN 2026/2025 (%)
PFEZ / IRPF	852.121	886.877	4,1
Sozietateen gaineko zerga / Impuesto sobre sociedades	162.502	191.884	18,1
Ondarearen gaineko zerga / Impuesto sobre el patrimonio	68.308	74.410	8,9
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	1.082.931	1.153.172	6,5
Ondare eskualdaketa eta EJD zerga / Impto. transmis. patrimoniales y AJD	50.369	59.345	17,8
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impto. sobre el valor añadido	1.230.657	1.564.557	27,1
Zerga bereziak / Impuestos especiales	65.562	66.683	1,7
Aseguru primen gaineko zerga / Impto. sobre primas de seguros	13.331	15.546	16,6
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	1.359.919	1.706.131	25,5
GUZTIRA / TOTAL	2.442.851	2.859.303	17,0

Mila eurokotan / En miles de euros

BEZean 2026rako eta 2025erako aurreikusitako gastu fiskalaren arteko aldea (%27,1), neurri handi batean, 2025eko aurrekontuan gastu fiskala gutxiegi aurreikusi zelako gertatzen da. Aurreikuspen hori zuzenduta 2025eko zerga-bilketa datu, igoera nabarmen txikiagoa izango litzateke, zehazki, %10,1. Eta bariazioa hori koherentea da 2026rako BEZagatik aurreikusitako zerga-bilketako zenbatekoaren igoera aurreikuspenarekin, 2025erako aurreikusi zen zerga-bilketa zenbatekoarekin alderatuta.

